



Chris Kase

Izenburua: My Private Circus
Euskarria: CD Ref.: ER-054
2013 - Urtarrila



“*My Private Circus*” du goiburu Chris Kase tronpeta jotzaileak buru gisa argitara emandako zazpigarren diskoak. Bere-berea du musikari estatubatuarrek batere arrunta ez den disko hau. Badira horretarako zenbait arrazoia. Izan ere, konposizioaz eta bere ohiko musika-tresna jotzeaz gainera, beste egiteko batzuk ere bere gain hartu ditu Kasek –besteak beste, baxua eta teklatuak jo ditu, soinu teknikariarena egiteaz gain–, eta disko batean orain arte saiatu edo erregistratu ez dituen esparru estilistiko guztiz berezietan murgildu da.

Disko honetan entzun dezakegun musika talde klasikoagoetara ohituta dagoen jazz zale batengandik espero zitekeena ez bada ere, esan dezagun are bitxiagoa gertatu zela bere sorrera. Izan ere, gauza bat eta bera bihurtu baitzen piezak konposatzea, interpretatzea eta grabatzea. “Batera egin nuen dena, ez nuen deus ere apuntatu, ez zegoen –ez dago– konposizio hauetarako partiturarik. Gehienez ere sekuentzia harmonikoak jasotzen zituzten post-it batzuk neuzkan nire estudioko horman itsatsirik, besterik ez. Lan egiteko era aldatuz gero aldatzen da azken emaitza ere. Amaierarako kaotikoa ematen zuen denak, zirku bat zirudien, baina ikusle bakarra zegoen: ni neu”.

Estilistikoki ere harago egiten du Kasek. Grabazio harrigarri honetan aukera dugu ohiko jazz akustikoari leku egiten ez dioten giroak entzuteko. Kasek berak dioenez, “urteak izan ditut konposizio eta musika-ideietan superabita izaten, horietako batzuk, edukiagatik edo musika-tresna elektronikoen erabileraeratik, ohiko laukote edo boskote formatuarekin uztartzen ez zirela. Iritsia zen noraino eraman ahal ninduten jakiteko unea. Hiru urte eman ditut proiektu honetan lanean, baina albora utzi gabe seikote apur bat konbentzionalagoarentzako musika konposizioak osatzen. Prozesu neketsua gertatu da zenbaitetan, baina oso baliagarria ikasteko”.

Idea horiek jazz fusiora eraman dute Kase. Ez da gaur goizekoa Kaseren baxu elektrikoarekiko (tarteekin eta gabe) zaletasuna. 1978. urteko udan entzun zuen lehenengoz musika-tresna hau, familiako kide baten bidez Weather Reporten *Heavy Weather* disko entzutetsua haren eskuetara iritsi zenean, eta handik gutxira, hogeita hamar dolar ordainduta, tarterik gabeko baxu bat erosi zion anaiak. Une horretatik aurrera erabat lotu zitzaion musika-tresnari, eta ahal zuena koptatuko zion Jaco Pastoriusi, orain hainbeste musikarientzat erreferentzia den diskoari ekarpen handia egin zionari, alegia.

Jazz fusioaren, elektronikaren eta jazz garaikidearen arteko uztarketa kitzikagarria eskaintzen digu Kasek 11 pieza hauetan, zeinetan lekua duten melodia itsaskorrek (*The Dark Passenger*), gogoetarako gonbidapena egiten duten giro sosegatuek (*Should've*), hip-hoperako egokiak diren erritmo oinarrien gainean eraikitako konposizioek (*Badness*), Europako iparraldetik datozen haize hotz eta malenkoniatsuek (*Radiant happiness*) edota jazz fusio peto-petoak (*Schizoid*).

Chris Kase (New Brunswick, 1964) jazz musikari eta tronpeta jotzailea da, eta Madrilen bizi da 1997. urteaz geroztik. Berklee College of Music eskolan ikasi zuen, eta ondoren University of Massachusetts unibertsitatean. Irakasle lanak egin ditu Estatu Batuetako zein Espainiako hainbat musika eskola eta unibertsitatetan, eta hainbat mintegitan hartu du parte. Gaur egun tronpeta eta inprobisazio irakaslea da Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Ikastegian, eta aldi berean grabazio eta kontzertuez betetako agenda dauka.

1994an konposizioari ekin zionetik, 70etik gora obra grabatu eta argitaratu ditu, eta hainbat musika argitalpen eta instituzioren errekonozimendua jaso du. Zazpi disko grabatu ditu buru gisa, eta horietako bat, **Six** (2012), urte hartako bost diskorik onenen artekoa zela iritzi zion Cuadernos de Jazz aldizkariak.

